



ERREFERENTEAK

ERREFERENTEAK

Ikusiker Panela osatzen duten UPV/EHUko eta UPNA-ko ikasleei beren erreferente edo ereduari buruz galdetu diegu, gertukotzat dituzten figurak, berekin identifikatuta sentitzen direnak edo besterik gabe gustuko dituztenak kontuan hartuta. Sei eremutan egin dira galdera horiek: musika, fikziozko ikus-entzunezkoak, kultura, politika eta mugimendu sozialak, kirola eta sare sozialak. Txosten honetan datu horiek jasotzen dira.

1. Ohar metodologikoak


Azterketa-lan hau egin den unean, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (UPNA) mila ikasletik gorak osatzen dute Ikusiker Panela. Unibertsitateri hauek modu iraunkor eta maiztasun handiz erantzuten dituzte luzatzen zaizkien online galdera-sortak, beti ere ikus-entzunezkoen kontsumoari eta IKTen-informazio eta Komunikazio Teknologien erabilereari buruzkoak. Panela 2018-2019 ikasturtean sortu zen Applika izeneko ikerketa-proiektuaren barruan (US17/40). UPV/EHUko NOR ikerketa-taldeak eta EITB-k abiatutako proiektuan unibertsitateko ikasketa desberdinetako eta hiru kanpusetako ikasleak biltzen ditu panelak.

Txosten honetan aurkituko dituzu 2021eko maiatzaren 24tik 31ra bitartean luzatutako galdera-sortaren emaitzak. Jasotzen duen informazioa da ikus-entzunezkoen kontsumoari eta serieak ikusteko ohiturei buruzkoa. Inkesta honen emaitzak ustiatzerakoan, 791 erantzun baliozko hartu dira kontuan (inkestaren amaierara iritsitakoak eta errepikatu gabeak).

2. Musikari, abeslari edo talde erreferentea / eredia

Musikari, abeslari edo taldeen kasuan, erreferente gisa edukitzeko gehien errepikatu diren argudioak bi dira: bere izaerak eta pertsonalitateak erakartzea (% 67,8k aipatu dutena) eta balore positiboak transmititzea (% 61,0ek aipatua). Erdibidean beste hiru argudio kokatzen dira: bere pentsaerarekin bat etortzea (% 45,4k esana), gai sozialetan inplikatzeko delak (% 42,9) eta profesional ona dela (% 40,3). Gutxien aipatzen diren elementuak mediatikoa izatea, aberatsa izatea eta fisiko ona edukitzea dira. Hiru ezaugarri horiek balio baxuenetan gelditzen dira eremu guztietan, modu berdintsuan.


1. Irudia – Zergatik hartzen duzu ejenpluztat edo eredutzat aipatu duzun pertsona edo talde hori? Aukera anitza



Iturria: Ikusiker Applika +

Musikari, abeslari edo talde hori jarraitzeko bide nagusiak musika plataformak (% 79,7k aipatua) eta sare sozialetan (%77,3k) dira, Internetez eta aurrez aurreko ekitaldiez jarraituak (% 34,2k eta % 25,9k aipatuak azken hauek hurrenez hurren).

2. Irudia – Non edo zein medioren bitartez jarraitzen duzu musikari, abeslari edo talde hori? Aukera anitza




Iturria: Ikusiker Applika +

3. Fikziozko ikus-entzunezkoetako (zinea, serieak...) erreferentea / eredia den aktore, zuzendari, gidoilari edo antzekoa

Fikziozko ikus-entzunezkoetako erreferentziak argudiatzeko aurreko blokean agertutako bi arrazoi nagusiak azpimarratzen dira bereziki, profesional ona izatea (% 68,0) eta bere izaerak eta pertsonalitateak erakartzea (% 61,0). Oraingo kasuan, baina, hirugarren arrazoi batek ere pisua hartzen du: balore positiboak transmititzeak (% 49,4k aipatua).


3. Irudia – Zergatik hartzen duzu ejenplutzat edo eredutzat aipatu duzun pertsona hori? Aukera anitza



Iturria: Ikusiker Applika +

Pertsona horren jarraipena egiteko erabiltzen diren bide ohikoenak sare sozialak (% 60,3), telebista (% 50,5) eta Internet (% 45,0) dira.

4. Irudia – Non edo zein medioaren bitartez jarraitzen duzu aktore, zuzendari edo mundu horretan aritzen den pertsona hau? Aukera anitza



Iturria: Ikusiker Applika +

4. Kulturen (dantza, artea, literatura...) erreferentea / eredu den pertsona edo taldea

Kulturaren eremuan (dantza, artea, literatura...) erreferenteak azaltzeko eskaintzen diren arrazoiaren artean, profesional ona izatearen segidan (% 58,8k esana), ideien planoarekin lotutako aspektuak datoz: balore positiboak transmititzen dituela (% 44,7), bere pentsaerarekin bat etortzea (% 35,7) eta bere izaerak eta pertsonalitateak erakartzea (% 35,4). Kasu honetan, gai sozialetan inplikatzeko ere nolabaiteko pisua badauka argudioen artean (% 30,0), eta segidan arrakasta handia izateak (% 36,5). Beste kasuetan bezala, mediatikoa izatea, fisiko ona edukitzea eta aberatsa izatea dira aipamen gutxien jaso dituzten elementuak.


5. Irudia – Zergatik hartzen duzu ejenplutzat edo eredutzat aipatu duzun pertsona edo talde hori? Aukera anitza



Iturria: Ikusiker Applika +

Jarraitzeko ohiko bideak, beste kasuen moduan, sare sozialak (% 48,2) eta Internet (% 38,6 dira).

6. Irudia – Non edo zein medioaren bitartez jarraitzen duzu pertsona edo talde hau? Aukera anitza




Iturria: Ikusiker Applika +

5. Politikaren eta mugimendu sozialen esparruan erreferentea / eredia den politiko, aktibista, filantropo edo erakundea

Politikaren eta mugimendu sozialen eremuan aipatu dituzten erreferenteak zein arrazoiengatik hautatu dituzten galdetuta, argudio nagusien hurrenkera aldatu egiten da beste kasuekiko. Beste eremuetan aipatuena den profesional ona izatearen ideia lehenengo postuetatik ateratzen da eta, bere ordez, aukeratuena izan den ezaugarria gai sozialetan inplikatzeari da (% 62,7k hautatu dute). Segidan, bere pentsaerarekin bat etortzea eta balore positiboak transmititzea daude. Kontrako norabidean, bi aldagai ia inork ez ditu aukeratu: aberatsa izatea (% 2,4k hautatua) eta fisiko ona izatea (% 1,7k).


7. Irudia – Zergatik hartzen duzu ejenpluzat edo eredutzat aipatu duzun pertsona edo erakunde hori? Aukera anitza



Iturria: Ikusiker Applika +

Pertsona edo erakunde horiek jarraitzeko erabiltzen diren bideen artean, sarritan aipatzen diren sare sozialei eta Interneti (%57,1ek eta % 42,0k aipatuak hurrenez hurren), telebista gehitzen zaie (% 38,4k esana), eta egunkariak ere laurdena inguruk aipatzen ditu (% 23,4k).

8. Irudia – Non edo zein medioren bitartez jarraitzen duzu pertsona edo erakunde hau? Aukera anitza



Iturria: Ikusiker Applika +

Ehunekoak

6. Kirolarien arteko erreferente edo eredia

Kirolaren eremuan erreferentzia moduan hartzen diren pertsonen hautua argudiatzeko arrazoi nagusia profesional ona izatea da, % 75,4k aipatua, eta segidan datoz balore positiboak transmititzea (% 47,4k esana), bere izaerak eta pertsonalitateak erakartzea (% 42,7ren arabera) eta, beste kasuekin alderatuta, arrakasta handia izateak garrantzia hartzen du (% 36,3k aipatzen baitu). Fisiko ona izatea ere beste arloetan baino gehiago aipatu da, % 21,8k.


9. Irudia – Zergatik hartzen duzu ejenpluzat edo eredutzat aipatu duzun pertsona edo erakunde hori? Aukera anitza



Iturria: Ikusiker Applika +

Pertsona hori jarraitzeko erabiltzen diren bideen artean sare sozialak eta telebista aipatzen dira gehien (kasuen % 61,8k eta % 57,2k), eta segidan Internet (% 38,0k).

10. Irudia – Non edo zein medioaren bitartez jarraitzen duzu pertsona edo erakunde hau? Aukera anitza




Iturria: Ikusiker Applika +

7. Sare sozialetako (Instagram, Tik-Tok, Twitter, Youtube, Twitch...) erreferente / eredia

Amaitzeko, sare sozialen kasuan, kulturaren arloan gertatzen zen antzera, ideien eta balioen planoaz azpimarratzen da gehien aukeratu diren erreferenteetaz aritzerakoan: bere izaerak eta pertsonalitateak erakartzen duela (% 70,7), balore positiboak transmititzen dituela (% 67,8), eta bere pentsaerarekin bat etortzea (% 53,4). Segidan datoz profesional ona izatea (% 48,2) eta gai sozialetan inplikatzeari (% 28,3).


11. Irudia – Zergatik hartzen duzu ejenplutzat edo eredutzat aipatu duzun pertsona hori? Aukera anitza



Iturria: Ikusiker Applika +

Jarraitu ohi den medioen artean, esan daiteke esklusiboki bi bide aipatzen direla: sare sozialak eta Internet, oro har. Izan ere, sare sozialak erantzuleen % 93,6k aipatzen dituzte, ia guztiek, eta % 36,7k aipatzen dute Internet. Hirugarren lekuan telebista gelditzen da, erantzun dutenen % 9,5ek aukeratuta.

12. Irudia – Non edo zein medioen bitartez jarraitzen duzu pertsona edo erakunde hau? Aukera anitza



Iturria: Ikusiker Applika +


8. Arrazoien eta jarraitzeko moduen konparaketa eremuen arabera

Bukatzeko, eremu guztien arteko ikuspegi orokor bat eskainiko dugu. Erreferente edo eredu gisa aipatutako pertsona, talde, mugimendu edo erakundeak zergatik aukeratu diren galdetutakoan jaso diren argudioen artean joera orokor batzuk nabaritu dira, nahiz eta eremuz eremu aldeak ere ikusi diren.

Oro har, eremu batzuek garrantzia handiagoa izan dute besteek baino: profesional ona izateak, bere izaera eta pertsonalitatea erakargarria izateak, balore positiboak transmititzeak, bere pentsaerarekin bat egiteak eta gai sozialetan inplikatzekoak. Aldiz, beste muturrean, garrantzia gutxi aitortu zaien ezaugarrien artean honakoak daude: aberatsa izatea, fisiko ona edukitzea edo mediatikoa izatea, hedabideetan agertzea.

Joera orokor horiez gain, eremu bakoitzeko ñabardurak ere ikusten dira. Hala, gai sozialetan inplikatzeari, transmititzen dituen baloreak positiboak izateari eta bere pentsaerarekin bat etortzeari garrantzia handiagoa aitortzen zaie politikan eta mugimendu sozialetan edota sare sozialetan; eta, aldiz, profesional ona izateari kirolean eta fikziozko ikus-entzunezkoetan.


13. Irudia – Ejenplutzat edo eredutzat hartzeko arrazoiak eremuka, aukera anitza



Iturria: Ikusiker Aplikatu +

Pertsona edo talde horiek jarraitzeko erabiltzen diren bide orokorren artean, joerak are markatuagoak dira. Oro har, bi bide nagusi azpimarratzen dira: sare sozialak eta Internet. Kasu jakin batzuetan, telebista ere aipatzen da kopuru mugatu batean (fikziozko ikus-entzunezkoei, politika eta mugimendu sozialei eta kirolari dagokienez), eta baita egunkariak ere (politika eta mugimendu sozialei edo kirolari dagokienez). Berezitasun bat dago musikaren eremuko erreferenteekin, musika plataformak aipatzen baitira nagusiki horiek jarraitzeko. Hala, modu orokorrean esan daiteke inkestatutako pertsonen beren erreferenteei buruz jarraitzen dutena, nagusiki, Interneten eta sare sozialen bidez jasotzen dutela.

14. Irudia – Non edo zein medioren bitartez jarraitzen diren eremuka, aukera anitza



Iturria: Ikusiker Applika +

Nola aipatu txosten hau:

NOR Ikerketa Taldea (2021). "Erreferenteak". Ikusiker Unibertsitatea Panelaren 27. Txostena. 2021eko maiatza. Applika Ikerketa-proiektua (US17/40). UPV/EHU. <http://www.ikusiker.eus>